

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza sailburuaren 137/2019 Foru Agindua, ekainaren 3koa, Iruña Okako 1. poligonoko 697, 698, 766, 767, 768 eta 1.105 partzeletan makalak mozteko proiektuaren ingurumen eraginaren txostena ematen duena

Iruña Okako 1. poligonoko 697, 698, 766, 767, 768 eta 1.105 partzeletan makalak mozteko proiektua "ingurumen inpaktu sinplifikatuaren ebaluazio prozeduraren pean dago; prozedura hori Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez arauturik dago. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorrean (l. eranskina, C-3.2 paragrafoa) eta 21/2013 Legearen 7. artikuluan jasotako kasuetan kokatzen da proiektua, makalak mozteko planteatzen baita ES2110010 Zadorra ibaiaren BBERi dagokion "Natura 2000 Sarea" eremuaren barruan.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Iraunkortasun Zerbitzuak, 2019ko urtarrilaren 29an, Langraiz Okako Administrazio Batzarrak bidalitako idatzia jaso zuen, Eraginaren Ebaluaziorako prozedura izapidetzen hasteko, eta 21/2013 Legearen 45. artikulua eskatzen duen ingurumen agiria aurkeztu zuen. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Iraunkortasun Zerbitzuak, arestian adierazitako dokumentazioa jaso ondoren, hasiera eman zion ukitutako administrazio publikoekiko eta pertsona interesdunekiko kontsulta-faseari otsailaren 1ean, 21/2013 Legearen 46. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta, Ingurumen Iraunkortasuneko Zerbitzuak 2019ko maiatzaren 28an emandako ingurumen eraginaren txostenean ezartzen diren balorazioa, zehaztapenak eta baldintzatzaileak jasotzen ditu Foru Agindu honek. Foru Agindua eta ALHAOn argitaratutakoak 21/2013 Legearen 47. artikulua hiru garren epigrafean jasotako xedapenei erantzuten die.

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpen txikia. Ebaluazioaren xedea den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Proiektuaren ezaugarrien laburpen txikia:

Langraiz Okako Administrazio Batzarrak makaldi baten mozketari sustatu du Administrazio Batzarraren lurretan, hain zuzen ere Iruña Okako 1. poligonoko 697, 698, 766, 767, 768 eta 1.105 partzeletan. Zadorra ibaiaren bi ertzetan dauden lurak dira, Langraizeko herri horretako uretan behera.

Proiektu honen barruan, ingurumenari buruzko agirian, makalak mozteko ez ezik, moztu ondorengo beste jarduketak batzuk ere aintzat hartu eta aztertu dira, hala nola motzondoaren tratamendua eta eremu berean etorkizunean izango diren jarduketak, adibidez aipatutako lurzatiaren zehaztasunak landatzea.

Proiektuak planteatutako makal moztearen azalera, guztira, 4,72 hektareakoa da (katas-tro-neurketaren arabera); makalek oro har 18 urte dituzte, 766 partzelan daudenek izan ezik (horiek 12 urtekoak dira). Gauzak horrela, guztira ustiatuko den egur bolumena 1.647 m³-koa izango da, 1.244 oinetan banaturik. Zuhaitzen batez besteko diametroa 43 cm-koa da.

Zenbait lur-zatitan egiaztatzen da obra hondakinak eta bestelako materialak daudela, proiektuaren burutzapen esparruan garbitu eta tratatu beharrekoak, indarrean dagoen legeriaren arabera.


Erriberako luzera 950 metrokoa da, eta 7 metrotik gorako zabalera du alderik estuenean (ibaiaren eskuinaldean) eta 57 metro Zadorra ibaiaren ezkerreko alderdik zabalenean. Bandarik estuenean banda zabalera ez du ahalbidetu bi makal ilara edo lerro baino gehiago landatzea. Ezkerrean ilara kopurua zazpikoa da.

Ingurumen agirian mozketa eta horren ondorengo landaketa egiteko ingurumen baldintzak jasotzen dira; hala, ingurumen ondorioetarako, irtenbiderik egokien gisa proposatzen da espezie autoktonoen landaketak egitea ES 2110010 Zadorra ibaiaren BBEen.

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

Proiektua Iruña Okan garatuko da, Arabako Lurralde Historikoaren barnean. Mozketa egitasmoa gehienbat Zadorra ibaiaren BBEren barruan proiektaturik dago (2,93 ha) eta gainerako lurak BBE babesteko gune periferikoaren barruan daude (1,79 ha).

Lurak Langraiz Okako Administrazio Batzarreko jabetzakoak dira; gauzak horrela, 698 partzela udalerritik 150 metro ingurura dago, Los Llanos deritzon industrialdetik hurbileko eremu batean.



1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako ingurumen agirian azaltzen denez, jarduketa aukerak aztertzeko atalak honako hauek dira:

- Mozketa garaiak.
- Mozketa tartekak.
- Motzondoaren tratamendua.
- Mozketa hondakinen destinoa.
- Etorkizuneko jarduketa neurriak (makalen landaketa berria edo landaretza autoktonoaren berreskurapena).

Mozketa garaiak:

Bi aukera azaltzen dira mozketa garaiari dagokionez. Alde batetik, mozketa garai zehatzik ez ezartzea, urteko edozein garaitan eginez, aukera ekonomiko eta administratiboaren araberak. Beste aldetik, ingurumen aldea kontuan hartzea planteatzen da, mozketa egitea saihestuz

ibaiaren ekosisteman bizi diren fauna espezie nagusien ugalketa garaietan eta ibarretako zuhaitz autoktonoen espezien gaineko efektuak minimizatuz.

Makaldia urteko edozein garaitan mozteko aukera ez du egokitzen jotzen ingurumen agiriak, ekosistemei eta bizi zikloei eragiten zaizkien ukipenak kontuan hartzen ez dituelako. Beharrezkotzat jotzen da eremuko espezie nagusien ugalketa garaiei men egitea (batez ere bisoi europarrari dagokionez). Horregatik, sustatzaileak aurkeztutako agirian bertan ondorioztatzen da ez direla zuhaitzak moztu behar martxoaren 15etik uztailaren 31ra bitartean.

Mozketa tarreak:

Zenbait aukera planteatzen dira; hala ere, amaieran ez da aukera zehatz baten alde egiten eta dena zabalik uzten da, kontratatutako zur enpresak ezar ditzakeen mugen edo baldintzen pean.

Aukera bat da makaldi osoa kentzea, ibaitik hurbilen dagoen ibarreko ekosistemari eutsiz.

Bigarren aukera da bi fasetan jardutea, horietariko bakoitzean 2 hektarea inguruko mozketa eginez.

Azkenik, aukera onargarri gisa zehazten da, zur enpresak ezar dezakeen mugaren arabera, ibar bakoitza epe desberdinetan moztea, konektibotasunaren gaineko efektuak mugatzeko.

Motzondoaren tratamendua:

Lau aukera planteatzen dira: herbiziden erabilera, motzondoak onddoen bidez tratatzea, zura atzerako hondeamakinen bidez ateratzea eta motzondoak kentzekoa erabiltzea barrena bidez.

Herbizidak eta atzerako hondeamakina erabiltzea bazter utzi da ingurumen arrazoiengatik, mozketa natura eremu babestu batean egin behar baita. Onddoen bidezko tratamendua kostuagatik baztertu da, eraginak oso astiro sortzen direlako eta burutzerakoan arazoak edo zailtasunak sorrarazten dituztelako.

Aukerarik egokientzat hartu da barrena bidez motzondoak kentzekoa; izan ere, horrek "in situ" egingo den espaltzea ahalbidetuko du, luraren gainean ingurumen efektu hobea eraginez. Haren kostuak onargarriak dira eta emaitzak berehalakoak.

Mozketa hondakinen destinoa:

Aukerarik egokiena zur hondakinen aprobetxamendua da; beraz, hondakinak ez dira erreko.

Mozketaren osteko ekintzak: landaretzaren ondorengo birjarpena:

Behin mozketa egin eta motzondoei dagokien tratamendua eman ondoren, eremua lehengoratu beharra dago. Horretarako, zenbait aukera proposatzen dira ingurumen agirian.

Lehenago eta behin, ingurumen agiriak aipatzen du eremua zuhaitz autoktonoen bidez birlanda litekeela, belar estaldura bat ezarriz.

Belar estaldura bat ezartzen bada birlandaketari hostozabalen espezie autoktonoekin ekin gabe ez da nahikotzat jotzen, gutxien-gutxienik ibaitik hurbilen dagoen 5 metroko zerrenda birlandatzen ez bada.

Ingurumen agirian adierazten da makaldiaren aprobetxamendu ekonomikoak nekez justifikatzen duela landaketa berri batekin errepikatzea, haren errentagarritasun ekonomikoa zalantzakoa delako.

Hostozabal "produktiboen" landaketa (hala nola intxaurrendoa edo gereziendoa) desabantailak dituen aukeratzat hartzen da, mozketa txandak 25 urtekoak baitira eta makaldienak 14koak baizik ez.

Azkenik, ondorioztatzen da aukerarik egokiena espezie autoktonoen bidez lehengoratzea litzakeela, baina, horretarako, Administrazioaren laguntza ekonomikoa beharko litzateke.

2. Kontsulta fasearen laburpena

Urtarrilaren 31n Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eraginpeko administrazio publikoei eta interesa duten pertsoneri kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
SEO Bird Life	
Arabako Kontzejuen Elkarte	
Iruña Okako Udala	√
Langraiz Okako Administrazio Batzarra	
Añanako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 17/49 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi du makalak mozteko eremua osatzen duten zazpi partzeletatik bat (zehatzago 1. poligonoko 698. partzela) “Puente-viejo” izeneko zubiaren mugapenaren pean dagoela, betiere Zadorra ibaiko ibarreko zubiak sailkatzen dituen 222/2017 Dekretuaren arabera. Zubi hori dekretuan azaltzen da babes ertaineko atalean (2. zerrendako 76. zenbakia, 65. or. eta plano 27. or.). Beraz, Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazten duenez, lursail horretan kontuan hartu beharko da dekretuaren edukia eta ondare historiko eta arkitektonikoan eskuduna den foru organoak xedatu beharko du ea proiektuak dekretuan exijitutako neurriak betetzen dituen ala ez.

Ingurumen agirian aipatutako “Basterra” aztarnategi arkeologikoari dagokionez, Museo eta Arkeologia Zerbitzuak argitu du ez dagoela proiektuak ukitutako lursail bakar batean ere; hala, zalantzak argitze aldera, kokapen plano 27. or. erantsi du.

Hala ere, Museo eta Arkeologia Zerbitzuak zehaztu du ez dela kontuan hartu Santa Marinako herrixka gotortua; horren mugaketa eguneratua 1105 partzelaren zati txiki batera irits liteke. Hortaz, ondorioztatzen da Santa Marinako herrixkaren hondakin arkeologikoak ager litezkeela eta lurra mugitzean kontrol arkeologikoa beharrezkoa izango dela mugaketa eremuan.

- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza bat dator Foru Aldundiaren Museo eta Arkeologia Zerbitzuarekin "Basterra" eta Santa Marinako barruti gotortuaren ustezko zona arkeologikoei dagokienez, bai eta "Puente Viejo" eta haren inguruaren interes arkitektoniko handiko elementuari dagokionez ere. Beraz, ondorioztatzen da Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostenean aztertu beharko dela ea proiektua bateragarria den Santa Marina eta Puente Viejo ustezko zona arkeologikoetarako ezarritako babes araubidearekin, eta, hala badagokio, beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri beharko dira.

- Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak Natura Ondarearen Zerbitzuak emandako txostena igorri du, ingurumen eragina ebaluatzeko prozeduraren barruan kontuan har dadin, bereziki ingurumen eraginari buruzko txostenean.

Ingurumen ebaluazioa "zuzentzat" jotzen da, bai eta ingurumen agiriak egindako aukeren azterketa ere. Halaber, azpimarratzen da proiektuak honako neurriak ezarri beharko dituela, betiere BBE zaintzeko helburuen gaineko ukipena muga onargarrien barruan manten dadin:

- Mozketak ibarreko zuhaitz autoktonoen aleak errespetatu behar ditu, zehatzago zumeak eta haiekin batera azaltzen diren espezieak, horiek guztiek 92A0 kodeko habitata osatzen dutelako ("Salix Alba eta Populus alba-ko galeria basoak").

- Mozketa ez da aldi berean egingo; izan ere, aurrena ibar bateko mozketak egingo da eta, gutxienez bi urte igarota, egin gabe geratu den bigarren mozketak.

- Nahitaezkoa da BBEren barnealde osoa espezie autoktonoekin lehengoratzeko zereginak betetzea, eta ez bakarrik lehenengo 5 metroetan; hori guztia hala egingo da zuhaitzen estaldura berreskuratzeko eta ibarreko funtzionaltasun ekologikoari ez eragiteko. Kontuan hartu beharra dago gaur egun zuhaitzez estalitako gunen batean jardungo dela eta horrek garrantzi handia duela ibaiaren konektibitatean, eta ibarraren zabalera murrizteak kalte handia eragingo liokeela BBEri (nahiz eta zabalera hori landatutako makalek osatu). Belardi bat ezartzea ez da nahikoa ibarrei kohesioa eta egitura emateko eta ez da aholkatzen birlandaketarako espezie nobleen landaketa, epe ertaineko planteamendua mozketak bada. Edozein kasutan ere, sustatzaileari eskatzen zaio BBEren kudeaketa organoarekin eta URArekin lehengoratzeko planik egokiena adosteko, bai eta hura finantzatzeko aukerak ere.

- Mozketa bisoi europarra hazteko garaitik kanpo egin behar da (martxoaren 15etik uztailaren 31ra arte).

Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritza horrek, era berean, gomendatzen du neurri horiek BBEra ez ezik BBE babesteko zona periferikora ere zabaltzea, makalak mozteko eremu osora, alegia.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak jakinarazi du mozteko proposatutako makaldiak garatutako partzei zerbitzua ematen dieten bi bide erregistratu daudela: "Sorribas" bidea eta "Las Huertas" bidea. Bide horiei eragiteko moduko edozein jarduketa burutzen hasi aurretik, beharrezko txosten teknikoak eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuari.

Nekazaritza Zuzendaritzak adierazi bezala, lur horiei eragiten diete Natura 2000 Sarearen arautegiak, nekazaritza eta basogintzako LPSrenak eta ibaiak eta errekek antolatzen dituzten LPSrenak. Zuzendaritzaren txostenean zehatzen den legez, nekazaritza eta basogintzako LPSren antolamenduak eta ibaiak eta errekek antolatzen dituzten LPSrenak bat egiten duten eremuetan, ibai eta errekena gailenduko da.

Nekazaritza eta basogintzako LPSren arabera, mozketarako proposatutako partzelak "mendi" kategoriaren barruan daude, "basogintza" azpikategoriaren barnean; gauzak horrela, eremu horretan baso jardunak erabilera baimendutaz hartzen dira. Azkenik, ingurumen agirian ezarritako aukerei dagokienez (belardien birlandaketan edo hostozabalen landaketan oinarritzen direnak), kasu horietan ez dago nekazaritza lurzoruen galerarik eta, horregatik, oniritzia ematen zaio Nekazaritza Zuzendaritzaren txostenari.

- Iruña Okako Udalak hirigintzako udal zerbitzuak emandako txostena bidali du (udal arkitekto aholkulariak sinatutakoa) eta, gainera, beste txosten sektorial batzuk erantsi ditu, udalak proiektu honen inguruan duen espedientearen haritik emandakoak. Honako hauek, hain zuzen ere:

- Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren baimen baldintzadunaren ebazpena, 2018ko maiatzaren 18koa.

- Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako Zuzendaritzaren baimenaren ebazpena, 2018ko maiatzaren 8koa.

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren txostena, 2018ko otsailaren 14koa.

- Arabako Foru Aldundiko Natur Espazioen eta Biodibertsitatearen Atalaren txostena, 2017ko azaroaren 28koa.

Udal arkitektoaren txostenak zehazten du aurreikusitako jarduketak a priori bateragarriak direla hasiera batean onartutako hirigintza plangintzaren agiriaren ezarpenekin; agiri hori, beraz, igorri da, proiektuak nekazaritza eta basogintzako LPSn dituen ondorioak direla eta. Txostenean ondorioztatzen da ezin dela iradokizun edo oharrik egin ingurumen agiriari buruz, udal espedienteaz azaltzen diren txosten edota baimen sektorial bakoitzean jasotako baldintzatzaile eta neurri zuzentzaileak kontuan hartzetik harago.

Txosten edo baimen sektorialen ebazpenen artean, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak makalak ebakitzeko emandako baimena sartzan da. Baimen baldintzak dira, sustatzaileak manuz eta modu loteslean kontuan hartu beharrekoak (ikus kopia osoa 17-149 espedientearen eta www.araba.eus webgunean). Konfederazio Hidrografikoak berak zehazten duen bezala, Administrazio Hidrauliko eskudunaren baimenak ez ditu bazter uzten beharrezkoak diren gainerakoak, administrazio zentralaren, toki administrazioaren edo administrazio autonomikoaren aldetik.

Udalak, era berean, Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Zuzendaritzak mozketak egiteko emandako ebazpena erantsi du. Horren inguruan, burutzapen baldintzak ezartzen dira, ez zaiola A-2622 errepedearek eragiten bermatzeko.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiko Natur Espazioen eta Biodibertsitatearen Atalaren aldeko txosten baldintzaduna erantsi da; bertan alderdi nagusi modura ezartzen da ibarreko baso edota sotoak lehengoratzeko lankidetzak akordioak egin ahalko dira ibarretako lurretako jabeen eta Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuaren artean, betiere bi alderdiek lankidetzan jarduteko moduko landaketa proiektu bat proposatuz. Edonola ere, 5 metroko zerrendaren gutxieneko eta nahitaezko lehengoratzearen helburua izango da habitat naturalak eta landaretza autoktonoa hobetzea eta indartzea.

Natur Espazioen eta Biodibertsitatearen Atalak zehaztu bezala, jarduketak bisoi europarraren ugalketa epe kritikotik kanpo egin beharko dira (desagertzeko arriskua duela ezarrita baitago), hau da, haren kudeaketa planean ezartzen den martxoaren 15etik uztailaren 31ko epetik kanpo. Gainera, zur hilaren nolabaiteko kopuruari eutsiko zaio oinean edo lurrean, baliabide hori behar duten fauna espezieen babes, elikadura edo hazkuntza eremuak sortzeko.

Aipatutako atalaren txostenean ere ezartzen da birlandaketa zereginetan landaketa heterogeneoen moduluak erabili beharko direla, erregio bakoitzeko komunitateetako landaretza serietan oinarritutakoak (ES2110010 BBE kudeatzeko agiriaren 1. R.1. neurria). Horren inguruan, erabili beharreko zuhaitzak honakoa izan daitezke: lizarra (*Fraxinus angustifolia*), haltza (*Alnus glutinosa*), makala (*Populus nigra*), lertxunak (*Populus alba*, *Populus tremula*), urkia (*Betula alba*), zumarrak (*Ulmus glabra*, *U. minor*) eta astigarra (*Acer pseudoplatanus*). Espezie laguntzaile gisa bestelako espezieak erabili daitezke, hala nola sahatsak, hurritzak, elorri zuria, oilakara, intsusa, otsagereziondoa, makatziondoa, elorri beltza, etab. Toki jatorri ziurtatua duten landaretza eta material begetatiboa erabili beharko dira.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, Erakunde honetan ez dago jasota makalak moztu nahi diren partzeletan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egon denik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen "jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan".

- URA Agentziak Zadorra ibaiaren BBEn natura meritu bereziak aipatu ditu, bereziki jarduketa eremuarenak. Hala, nabarmentzen da Zadorra ibaiaren bi ibarrek, makaldiak hartutako eremuak, uholde arriskua dutela itzulketa epeko 10 urteko emariaren ondorioz, lehentasunezko fluxuaren zonan okupaturik daudela eta horren hedadurak makaldiaren azalera gainditzen duela, bereziki ezker aldean.

Herri administrazioen jarduketak orientatzera zuzendutako jarraibide edo xedapenen artean, baso erabilerari dagokionez, URAk hitzez hitz honakoa adierazten du:

"BBEn esparruan eta, bereziki, ibarretik hurbilen dagoen 15 metroko zerrendan eta 10 urteko itzulketa epeetarako uholde arriskua duten BBEn guneeetan habitat naturalak eta landaretza autoktonoa kontserbatzeko, hobetzeko eta indartzeko jarduketak sustatuko dira. Administrazio organo eskudunek baso espezie aloktonoen landaketak arian-arian aldatzeko akordioak eta neurriak bultzatuko dituzte ibai, estuario eta hezeguneetako espezie autoktonoen birlandaketak eginda. Irizpide hori BBEn titularitate publikoaren lurretan aplikatuko da lehentasunez, behin landaketa aloktonoek euren ugalketa zikloa amaitu eta moztu ondoren".

Mozketari dagokionez, URAk zehazten du ebaketa hori bisoi europarraren ugalketa epe kritikotik kanpo egin behar dela. Hala, adierazten du mozketa zenbait jarduketatan egin beharko dela, ibaia bi ibarretan aldi berean landaretzarik gabe geratzea saihestuz. Gainera, aipatzen du motzondoak tratatzeko herbiziden erabilera ekidin beharko dela, eta aukerarik egokien gisa baloratzen du zura espaltzea, erre beharrean.

Mozketaren ondoren lurrak tratatzeko eta lehengoratzeko ingurumen agiriak nabarmendutako aukeren artean, URAk gaiaren garrantzia nabarmentzen du eta, era berean, azpimarratzen du ez dagoela zalantzarik lursail guzti-guztiak espezie autoktonoen bidez lehengoratzeko lehentasunezko aukerari dagokionez. Izan ere, URAk azaldu bezala, horixe da Zadorra ibaiaren BBE kudeatzeko agirian ezartzen den irizpidea, 10 urteko itzulketa epea duen emariak ukitutako lurrak baitira.

Txostenean zehazten da, sustatzaileak aurkeztutako ingurumen agirian jasotako laguntza eta lankidetzaren administrazioaren eskariari men eginez, URA agentziak berak egin lezakeela espezie autoktonoen bidezko landaketa, bai eta eremua ingurumenaren aldetik lehengoratzeko lana ere, betiere Iruña Okan (Zadorra ibaian proiektatutako mozketa urretan goratik kilometro batera) Administrazio Hidrauliko horrek sustatutako aforoen estazio berriaren proiektuari aplikatutako konpentsazio neurri gisa.

Azkenik, URAk jakinarazi du fruta arbolekin (intxaurren edo gereziondoak) birlandatzeko aukeraren alde eginez gero, espezie horien presentzia mugatu beharko litzakeela birlandatu beharreko azaleraren kopuru txiki batera (ehuneko 10-15), betiere ibaiaren ezker aldean, zehatzago bide mugakidearen inguruan, ibilgutik urrutien dagoen lur zatian.

3. Eragina jaso lezaketan elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen eragin nagusiak

Ingurumen balio nagusiak:

Proiektua Iruña Okako udalerrian planteatzen da, 4,79 ha-ko azalera batean. Mozketaren xede diren lur zati gehienak Zadorra ibaiaren Babes Bereziako Eremuaren barruan (2,93 ha) daude eta gainerakoak Babes Eremu Periferikoaren barruan (1,79 ha). Eremu osoa 10 urteko itzulketa epe baterako ibaiaren uholde arriskuaren esparruaren barruan dago, bai eta Administrazio Hidraulikoak "lehentasunezko fluxu" gisa ezarritako lerroaren barruan ere, eremuaren zatirik handiena urpean geratzen baita ia urtero.

Zadorra ibaiko BBE Natura 2000 Sarearen Natura Gune Babestua da (ES2110010 kodea), betiere Arabako Lurralde Historikoko bost ibai Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituen 35/2015 Dekretuak, martxoaren 17koak, ezarritakoa. Natura Sarea sare ekologiko europarra da, Habitategi buruzko 92/43/EEE Zuzentarau europarrean oinarrituz izendatutakoa, eta toki horietan mehatxatutako espezie edo habitatak egon ohi dira. Eremuaren babesaren martxoaren 17ko 34/2015 Dekretu bidez arauturik dago; dekretu horren bidez ingurune hidrikoari lotutako BBE-rako arau orokorrak onartzen dira. Zadorra ibaiko BBE kudeatzeko jarraibide eta neurrien behin betiko onespena Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 10eko 122/2015 Erabaki bidez egin zen.

Ibai eremua Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Bikain eta Apartekoen Katalogoaren barruan dago paisaiaren aldetik dituen merituak direla eta (Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabaki bidez onartua): 45. Paisaia Apartekoa, "Zadorraren erdiko ibilgua".

Halaber, Zadorra ibaia fauna espezieen interes bereziko eremua da, Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sailkatutakoaren arabera; eremu horiek beren kudeaketa planak dituzte Arabako Lurralde Historikoan (hiru espezie desagertzeko arriskuan eta bat "kaltebera edo zaurgarria").

ESPEZIEA	IZEN ARRUNTA	EGOERA	KUDEAKETA PLANA
<i>Mustela lutreola</i>	Bisoi europarra	Desagertzeko arriskuan	322/03 Foru Agindua, azaroaren 7koa (2003ko abenduaren 5eko ALHAO, 142 zenb.)
<i>Lutra lutra</i>	Igaraba	Desagertzeko arriskuan	880/04 Foru Agindua, urriaren 27koa (2004ko azaroaren 24ko ALHAO, 136 zenb.)
<i>Squalius pyrenaicus</i>	Katxoa	Desagertzeko arriskuan	339/07 Foru Agindua, apirilaren 18koa (2007ko maiatzaren 14ko ALHAO, 58 zenb.)
<i>Riparia riparia</i>	Uhalde enara	Kaltebera	22/2000 Foru Dekretua, martxoaren 7koa (2000ko martxoaren 27ko ALHAO, 37 zenb.)

Zadorra ibaiko ibarrean, mozketa proiektaturik dagoen ibaiaren ondoko tokian, 92A0 kodea duten *Salix alba* eta *Populus alba* galeria basoak garatzen dira, bai eta 91E0 kodea duten "haltzadiak eta lizardiak" ere, betiere Natura Habitatak eta Baso Fauna eta Flora Zaintzeko 92/43/EE zuzentarau europarraren arabera. Hegazti fauna garrantzitsuen honakoa da: Martin arrantzalea (*Alcedo atthis*), ur zozoa (*Cinclus cinclus*) eta uhalde enara (*Riparia riparia*).

Zadorra ibaiko BBEko jarraibide eta erregulazioak (makalen mozketa eta eremua lehengoratzeko lana baldintzatzen dituzten arauzko alderdiak):

ES2110010 Zadorra Ibaiko BBEren arauzko agiriek aipamen ugari egiten dituzte baso birlاندaketen arazoaren inguruan eta horri buruzko baldintzak ezartzen dituzte proiektuen zehaztapen eta buruztapenean (neurri batzuk kontsulta fasean aipatu ditu dagoeneko bai URAk bai Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen Zuzendaritzak):

"Ibai sistema" gisa definitutako eremu babestuaren elementu "giltzarriaren" "kontserbazio egoerari" dagokionez, BBEren arauzko agirian baloratzen da baso jardueren garapenak ibarreko basoaren zeharkako konektibotasunari eragiten diola makalen landaketek ibarreko baso landaretza ordezkatzen duten tartetean. Hala, Zadorra ibaiko BBEren "mehatxuen" artean nabarmentzen da birlاندaketako makaldien agerpena ibarretako 22,5 kilometrotan (ibilguaren ondoan eta bi ibarretan, hain zuzen ere).

Hori dela eta, "Kontserbazioari eta Ingurumen Hobekuntzari" buruzko BBEren jarraibideen artean, honakoa sartzen da (34/2015 Dekretuaren "D-2"):



"Ibarreko basoen mantentzea eta berreskurapena ahalbidetu eta lehenetsiko da bai luzetara bai zeharka, ibarreko landaretzarik ez duten edo espezie aloktonoak nagusitu diren ibaietako ibarrak birlاندatuz, betiere landaretza naturalaren zerrenda etengabea ezartzeko ahaleginak eginez ibaiaren ibilera osoan zehar. Eremu horietako landaketetan lurra mugiarazteko lanak egitea saihestuko da. Halaber, ibai inguruneari lotutako biodibertsitatearen kontserbazioa aldeztu

duten ingurugiroen dibertsifikazioa lortzeko, zur hondakinen presentzia sustatuko da ibilguan (adarrak eta enborrak), baldin eta ikuspegi hidraulikotik ikusita arriskurik eragiten ez badute.

BBEren arauzko agiriaren barruan baso erabilerari buruzko honako jarraibide hau ere sartzen da (34/2015 Dekretuaren "D.3"):

"BBEren esparruan eta, bereziki, ibarretik hurbilen dagoen 15 metroko zerrendan eta 10 urteko itzulketa epeetarako uholde arriskua duten BBEren guneeetan habitat naturalak eta landaretza autoktonoa kontserbatzeko, hobetzeko eta indartzeko jarduketak sustatuko dira. Administrazio organo eskudunek baso espezie aloktonoen landaketak arian-arian aldatzeko akordioak eta neurriak bultzatuko dituzte ibai, estuario eta hezeguneetako espezie autoktonoen birlandaketak eginda. Irizpide hori BBEren titularitate publikoaren lurretan aplikatuko da lehentasunez, behin landaketa aloktonoek euren ugalketa zikloa amaitu eta moztu ondoren. Birlandaketa berriek landaketa heterogeneoen moduluak erabiliko dituzte, erregio bakoitzeko komunitate propioetako landaretza serietan oinarrituz."

Horren inguruan azpimarratu beharra dago, arestian azaldu bezala, mozketaren proiektuaren xedea den eremu osoak uholde arriskua duela 10 urteko itzulketa epe baterako, "lehentasunezko fluxuko lerroaren" barruan dagoela eta lur guztiak titularitate publikokoak direla, betiere Zadorra ibaiaren BBEko Natura Espazioaren barruan (2,93 ha) eta gainerakoak BBE Babesteko Eremu Periferikoaren barruan (1,79 ha).



Era berean, kontserbazio ekintzen barruan (KE) BBE kudeatzeko jarraibide eta neurriei buruzko agiriak honakoa jasotzen du ibai sistemari dagokionez (AC.2): "Ibarretako lurretako jabeekin borondatezko akordioak sustatuko dira, gaur egun makalen landaketek okupatzen dituzten, 10 urteko itzulketa eperako uholde arriskuko esparruaren barruan dauden eta, edonola ere, ibilgutik hurbileneko 15 metroko zerrendaren barruan kokatzen diren ibarretako partzeletan ibarreko basoaren lehengoratzeta eta sotoak sortzeko"

Ingurumen eragin nagusiak:

20 urtetik beherako mozqueta txandako makalen mozketak (proiektu honen kasuan 18 urtekoak) oso garrantzi handiko inpaktua du ibarreko eremuaren gainean, zatirik handienez zahaitzik gabe geratuko baita. Moztea proiektaturik dauden zenbait makal ibilguaren ertzean bertan eta herri jabari hidraulikoaren barruan kokatzen dira; beraz, mozketak kalteberatasun handiko espazio horiei eragingo die. Hori dela eta, funtsezkoa izango da mozketak egiteko eta motzondoak kentzeko neurriak zorrotzea, espazio horietan babesten den faunari albait gutxien eragiteko.

Mozqueta egun gutxiren buruan egiten bada, egun bakan batzuetan, horrek aldaketa handia ekarriko dio ibilguaren itzalari, uraren kalitatean eta urari zuzenean lotutako ekosistemen kalitatean eragina izanez. Itzal baldintzen transformazioak ekosistemen berehalako aldaketa ekarriko du, espezie helofiten garapen esponenziala bultzatuz, bestelako natura ekosistema onuragarriagoen kaltetan eta uraren kalitate handiko eremuei lotutako arrain espezieen garapenaren kaltetan.

Ezbairik gabe, itxuraz ibarretako zuhaitz guztien estaldura osoaren mozketaren inpakturik deigarriena, ebaketa hori proiektatuta dagoen tartean ikusten denaren edo paisaiaren aldetiko ikuspegiari eragindakoa da. Izan ere, gaur egun Zadorra ibaiko tarte ugari nekazaritza eremu baten barnean daude eta zenbait gune industria eremu baten barnean; horrek berekin dakar gune horietan zuhaitzirik ez izatea, betiere soto eta ibarretako tarteei lotutako landaretza propioa izan ezik. Birlandatutako makalen aldizkako mozketak (20 urteko edo handik beherako epealdietan) eragingo du mozketaren ondorengo aurreneko urteetan ibaia ikuspegiaren aldetik ia desagertuko dela. Nolanahi ere den, argi dago orain dela 18 urte egindako makalen birlandaketaren xede nagusiak mozqueta ekarri behar duela zura aprobetxatzeko; hortaz, mozketari ingurumen baldintzak ezarri arren, kasu honetan ebaketa egitea nahitaezkoa da.

Ingurumen agirian baloratzen da makalen mozketaren inpaktua "handia" dela igarobide ekologikoetan, baso faunarengan eta paisaian, eta ondorioztatzen da mozketaren ondorengo tratamendurako aukerarik desiragarriena dela eremua lehengoratzea espezie autoktonoak erabiliz, nahiz eta onartu horretarako URAREN edota Arabako Foru Aldundiaren laguntza beharrezkoa izango litzatekeela.

Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak pasa den urtean agindutako "Zadorra Ibaiko Uraren Egoera Ekologikoari eta Karakterizazio Kimikoari buruzko Zehaztapena"ren emaitzei jarraikiz, proiektuaren xedea den tartean ibarreko landaretzaren kalitatea "ez-nahikoa" da (QBR metodoa, bai eta desegokia ere (RQIA indizea). Egia esan, egindako azterketa eta azterlan guztien arabera, Zadorra ibaiko Natura 2000 Sarean uholde arriskua duten guneetako makaldiak oso inpaktu garrantzitsua du ibarreko basoaren sinplifikazioa dela eta, are gehiago kontuan hartzen bada mozqueta txandak 20 urte ingurukoak edo handik beherakoak direla. Aintzat hartu beharra dago BBERen oso esparru kalteberetan landaketa monoespezifikoaren sinplifikazioari lotzen zaiola landaketaren 20 urteetatik aurreneko lau edo bost urteetan zuhaitzen estratua desagertzen dela ibarretatik. Inpaktu hau, gainera, "desagertzeko arriskua-rekin" sailkatutako baso faunaren hiru espezieentzat berebiziko interesa duen BBERen esparru batean izango da.

Egia esan, makalen mozketaren, lehengoratze lanaren eta makalen ondorengo birlandaketa berriaren inpaktu handiek Zadorra Ibaian BBERen kontserbazio elementu "giltzarri" gehienei eragiten die; hona hemen:

- Ibai sistema.
- Ibai habitatak: habitat akuatikoak eta ibarreko baso autoktonoak.
- Biso europarra.
- Igaraba euro-asiarra.
- Komunitate iktikoa.

Horregatik, ingurumen inpaktuaren inguruan egindako azterketa kontuan harturik, Zadorra Ibaiko BBEren arauzko agiria ezarritako jarraibide eta neurriak ikusirik eta URA Uraren Euskal Agentziak eta Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Sailak egindako txostenekin bat etorririk, ondorioztatu behar da mozketaren proiektuaren xede diren partzelak lehengoratzeko eta ondoren landatzeko hautatu beharreko aukera, behinik behin BBEren esparruan (2,93 ha), honakoa dela: ibarreko landaretza potentziala eta autoktonoa berreskuratzera bideratu beharreko landaketa bat egitea, hain zuzen ere. Halaber, mozketaren proiekturik dagoen gainerako lurra BBE Babesteko Esparru Periferikoaren barruan (1,79 ha) dagoela kontuan harturik eta eremu oso horrek ere, BBEk bezala, 10 urteko itzulketa eperako uholde arriskua duela eta ibaiaren lehentasunezko fluxuaren ingurua dela aintzat harturik, gomendatzen da ibar autoktonoa berreskuratzera zuzendutako jarduketari hori babes eremu periferikora hedatzea.

4. Ingurumen baldintzak

Sustatzaileak prestatutako ingurumen agirian jasotzen diren eta Administrazio Hidrauliko eskudunak exijitzen dituen neurriez gain, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek ezarri beharko dira:

A) Mozketa diren azalaren inguruan zehatz mugatzeko eta zehazteko lanaren hasieraren aurretik eramango dira aurrera. Halaber, banan-banan zehaztuko dira babestu beharreko aleak, bai makalak bai bestelako espezie autoktonoak (haltzadi eta lizardiak osatutako ibarreko ertza eta sakabanaturik dauden bestelako zuhaitz aleak). Zuzenketa edo seinaleztapen horretan honakoak egongo dira: sustatzailearen aldetik arduraduna, kontratutako obraren burua, Ingurumen Iraunkortasunaren Zerbitzuko teknikari bat eta Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuko teknikari bat.

B) Zadorra Ibaiko BBEko ibarretako ezponden egonkortasuna ziurtatzeko eta "desagertzeko arriskuarekin" sailkatutako espezieentzako fauna babeslekuaren kontserbazioa bermatzeko, herri jabari hidraulikoaren barneko makalak eta makaldiak markatuko dira, babeste aldera, baldin eta natura espazio babestuaren ibarrean horien mozketak berekin badakar luraren ezegonkortasun, irristatze edo galera arrisku larria.

C) Jarduketa egutegian bisoi europarraren ugalketa epe kritikoa (martxoaren 15etik uztailearen 31ra artekoa) errespetatu beharko da; hortaz, mozketaren lanak epe kritikoa horretatik kanpo egin beharko dira.

D) "Puente Viejo" izeneko ukipen eremuaren eta haren inguruaren barruan (1. poligonoko 698. partzela) eta "Santa Marinako esparru gotortua" izeneko presuntzio arkeologikoaren gunean (1. poligonoko 1105 partzela) dauden makalak mozteari ekin aurretik, Arabako Foru Aldundia Euskara, Kultura eta Kirol Sailari beharrezko kontsulta egin beharko zaio, hala badagokio, eremu horretako kontrol arkeologikoa nola egin behar den zehazteko.

E) Ibilgutan debekaturik dago makineria astuna erabiltzea. Zura ateratzeko lana ibilgutik kanpo egin beharko da, ibilguari, ibilguko ezpondei edota babestu beharreko zuhaitz aleei eragin gabe (ibarreko landaretza naturala eta eremu barruko bestelako zuhaitz autoktonoak).

F) Gaur egungo sarbideak erabili beharko dira, eta ezingo da bestelako biderik zabaldu, horretarako alde aurretiko baimenik ez badago.

G) Herbizidak erabiltzea debekaturik dago. Motzondoak kentzeko, ingurumen agirian proposatutako aukerak kontuan hartuz, hautatu beharrekoa aukera honakoa da: barrenatzeko motzondo gabetzaile bat erabiltzea, betiere ezpaletan zatitzeko lana "in situ" eginez.

H) Mozketaren ondoren, Zadorra Ibaiko BBEri dagozkion espazioen barruan (2,93 ha), eremuaren lehengoratzeko ekologikoari ekingo zaio. Horretarako, zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak zehaztu eta horien landaketa egingo da, ibarreko basoa berreskuratzeko; izan ere, horixe da ibai eremu honetan interes komunitarioa eta lehentasunezko interes komunitarioa duten habitatei eta landaretza potentzialari dagokien baso mota (92/43/EEE). Era berean, gomendatzen da landaketa hori hedatzea 10 urteko itzulketa epe baterako uholde arriskua duen eremu osora, bai eta BBE Babesteko Zona Periferikoari dagokion "lehentasunezko fluxu eremura" ere (1,79 ha).

Eremu osoa ingurumenaren aldetik lehengoratzeko lanak bete daitezzen, sustatzailea Zadorra Ibaiko BBEn arauzko agirietan ezarritako kontserbazio jarraibide eta ekintzei lotu ahalko zaie; hori guztia hala egingo da, BBEn titularitate publikoko eremuak (10 urteko itzulketa epeetarako uholde arriskua duten zonekin bat datozenak) ingurumenaren aldetik lehengoratzeko akordioak eta neurriak sustatu eta bultzatu daitezzen. Horretarako, URAk ingurumen eraginaren ebaluazio prozedura honetako "kontsulta" fasean egindako txostenean ezarritako lankidetzaren proposamena hartu beharko da kontuan (ikus 3. atala, txosten honen 9. orrialdean). Aintzat har daitezkeen beste aukera bat da Foru Aldundi honen Natura Ondarearen Zerbitzuarekiko lankidetzaren edo akordio proposamena.

Eremuan espezie autoktonoak landatzeko eta eremua lehengoratzeko jarduketak zehatz-mehatz definituko dira ingurumena lehengoratzeko eta paisaia integratzeko proiektu zehatz batean; egitasmo hori inpaktua ebaluatzeko eta BBEn espazioa kudeatzeko ingurumen organo eskudunei aurkeztu beharko zaie, onar dezaten.

I) Zuraren estaldurari eusteko lanak egingo direla bermatu beharko da estaldura jarria izan den hasierako epean zehar (urte 1 edo 2, landaketaren ondoren), behin betiko sustraitu eta finkatuko dela bermatzeko. Honakoak hartuko dira kontuan: balizko defizit hidrikoko denboraldi arriskuak, landare hilen lehengoratzeara, oinarriaren zaintzaile eta babesleen lehengoratzeara, ongarrizteara, eraketa inausketak, sasitzak kentzea, etab.

J) Ingurumen kalteberatasunik handieneko guneetan, hau da, BBEn esparruan eta babes zona periferikoan, ez da zerbitzugunerik jarriko, ez makineria parkerik, ez eta produktu kutsagarriak batzeko biltegirik ere.

K) Obrak egin bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaiak biltzeko ontzi hermetiko edo biltegi iragazgaitzak edo antzeko sistemak jarri beharko dira; hala, erabilitakoak isurtzea debekatzen da eta, gainera, kudeatzaile baimendu bati eman beharko zaizkio.

L) Obrak bukatu ondoren garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Mozketa burutzeko eragin eremua hondakin ez-begetaletatik garbi geratu beharko da, betiere zur hilaren nolabaiteko kopurua utziz eta ibarreko hondakin desegokiak batuz, behar bezala tratatzeko eta kudeatzeko arauzko marko zehatzaren arabera.

M) Komenigarritzat jotzen da ingurumen arloko jarraipen zeregina betetzea; jarraipen hori modu koordinatuan egin beharko dute sustatzaileak eta inpaktuaren ebaluazioaren arloan eta BBEn espazioaren kudeaketan eskudunak diren ingurumen organoek. Ingurumen jarraipena mozketaren burutzeko eta ingurumena lehengoratzeko fasean zehar egingo da, aplikatutako ingurumen neurri babesle, zuzentzaile eta lehengoratzailen eraginkortasuna ezagutzeko eta ebaluatzeko eta atzeman daitezkeen gabeziak zuzentzeko. Jarduketak amaitu ondoren, hori ingurumen Iraunkortasuneko Zerbitzuari jakinaraziko zaio, ezarritako ingurumen neurriak zuzen bete direla egiazta dezan.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

XEDATU DUT

Lehenengoa. Iruña Okako 1. poligonoko 697, 698, 766, 767, 768 eta 1.105 partzeletan makalak mozteko proiektuaren ingurumen eraginaren txostena ematea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen inpaktuaren txostenak ingurumen erabaki loteslearen ondorioak izango dituen proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen Inpaktuaren Txosten hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 3a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN